

Helianthus tuberosus: TOPINANBUA

Helianthus tuberosus: identifikazioa



Topinambua landare belarkara iraunkorra da eta 1 eta 2,8 m arteko garaiera hartzen du. Ertz zerraduneko hosto arrauzkarak ditu, 25 cm-ra iristen direnak. 4-8 cm-ko infloreszentzia horiak ditu eta abuztutik urrira bitartean loratzen da. Bere sustrai-sistema oso indartsua da, errizomak eta tuberkuluak ditu.



Gure eskualdean lurpeko organoen bidez ugaltzen da. Ingurune hezeetan ondo egokitzen da eta tenperatura-tarte zabala jasaten du. Toxinak jariatzen ditu beste landare batzuentzat.

Helianthus tuberosus: jatorria eta kokapena

Jatorriz Ipar Amerikakoa da (Estatu Batuak eta Kanada). Gaur egun landare-apaingarri gisa erabiltzen da, baita bioerregaiak ekoizteko ere. European, Asian, Australian, Ozeanian eta kontinente amerikarraren beste eskualde batzuetan bertakotu da. Iberiar penintsulako ipar-ekialdean oso ohikoa da. Euskadiko kantauriar isurialdeko ibai batzuetan ugaria izan daiteke.

Helianthus tuberosus: arriskugarritasuna, eragina eta egoera

Ibaiertzetan egokitzeko izugarritzko gaitasuna eta **ahalmen inbaditzaile handia** duen landarea da, bere ugalketa sistema asexualen (errizomak eta tuberkuluak) eraginkortasuna dela eta. Gainera, bertako landareen hazkundeari eta garapenari eragiten dieten toxinak sortzeko gaitasuna du ere. Ibaiertzak kolonizatzen ditu eta bertako landaredia ordezkatzeko du, bere espezieko aleez osatutako orbanak sortuz. 630/2013 EDaren zerrendan sartuta dago.

Helianthus tuberosus: kontrol eta kudeaketa metodoak

Espezie hau **kontrolatzea zaila da ugalketa asexualerako duen gaitasun indartsua** dela eta. Kasu gehienetan uretatik oso gertu dauden ertzetan egoten denez, **herbiziden erabilera baztertu** behar da horren suntsiketarako. Hau da lan prozedura:

- Landare osoa kentzea aitzurraren laguntzaz, sustrai-sistema osoa ateratzen saiatuz
- Prozedura hainbat aldiz errepikatu behar da lehen urtean, ernaberritze arrisku handia baitago
- Lehen tratamenduaren ondoren, bertako landareak berlandatu behar dira lehia sustatzeko
- Komenigarria da jarraipena egitea, gutxienez bigarren urtean; kimuak hautematen badira eskuz kenduko dira errizoma- eta tuberkulu-bankua agortu arte

Arreta handia jarri behar da landare hondar guztiak biltzerakoan eta erabilitako ekipamenduak garbitzerakoan. Hondar guztiak ongi itxita eraman behar dira balorizazio energetikoaz arduratzen den zentro batera. Landare hondar hauek ez dira konpostatu behar.